

MANTARENA

Materiala: Manta edo zakua.

Jokatzeko era:

Taldeko haur bat aukeratuko da. Bere gogoz agertzen bada, hobe. Kanpora aterako da eta bitartean besteei jolasa azalduko zaie. Kanpoan dagoen haurra barrura sarraraziko dugu eta lurrean etzanda jartzeko esango diogu, eta manta batez estaliko dugu. Orduan esango



zaio berak soinean duen zerbait pentsatu dugula eta zer den asmatu behar duela; pentsatuta daukaguna manta izango da. Asmatzen badu, bukatu da jolasa, baina zerbait esan eta asmatzen ez badu, esan duen hori erantzi egin beharko du. Gehienetan manta ez zaie bururatzen eta haren azpian erdi biluzik geratzen dira. 9 aste eta erdi pelikularen musika jarritz polita goa geratzen da.

